

2006-12-28ko EZOHIKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta seigarren urteko abenduaren hogeita zortzian, arratsaldeko 20:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohiz kanpoko batzarra egin du Udalbatzak Marimi Ugalde Zabala alkatea buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Agustin Zubeldia Iraola, Aitor Lasa Olalde eta José Luis Olano Zubeldia.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute M. Jesus Otaño Zumeta, Eugenio Loidi Garmendia eta Gregorio Lasa Etxezarretak.

Ez dira etorri eta ez dute adierazi ezin etorria: inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusinek, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

DEIALDIAREN PRESAZKO IZAERA BERRONESTEA.

Udalbatzak erabaki du aho batez deialdiaren presazko izaera onartzea, korporazioko partaideen zilegizko gehiengo osoa osatzen dutenen aldeko botoarekin.

BIGARREN GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (06-09-27).

2006ko irailaren 27ko ezohiko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak hau onartzea.

HIRUGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

-2006-09-22ko 125/06 Dekretua: 14.830,75 €-ko abuztuko fakturak onartzea.

-2006-10-06ko 126/06 Dekretua: L.K.S. S. Coop. enpresari 1.500 €-ko fidantza itzultzea.

-2006-10-22ko 127/06 Dekretua: Julian Azpiroz jaunari, etxeko sukaldean obrak egiteko baimena ematea.

-2006-10-02ko 128/06 Dekretua: G. Amezttoy kaleko 3an igogailuaren segurtasun neurriak jartzeko baimena ematea.

-2006-10-03ko 129/06 Dekretua: Aitor Lizarraga jaunari birziklatutako kartutxoan jarduera jartzeko baimena ematea.

-2006-10-03ko 130/06 Dekretua: Aitor Lizarraga jaunari birziklatutako kartutxoan jarduera irekitzeko baimena ematea.

-2006-11-03ko 131/06 Dekretua: 140-E espedienteari etxez etxeko laguntza zerbitzua ematea.

-2006-10-03ko 132/06 Dekretua: 140-E espedienteari gizarte larrialdiko laguntza ematea.

-2006-10-03ko 133/06 Dekretua: udal-tasak ordaintzeko laguntza ematea 131-E espedienteari.

-2006-10-05ko 134/06 Dekretua: Naturgas enpresari baimena ematea Guibe S.A. zonaldeko urbanizazio berrian gas-sarearen kanalizazioa egiteko.

- 2006-10-06ko 135/06 Dekretua: Kale nagusia 12ko etxe inguruko zakurrak kentzeko eskaera.
- 2006-10-06ko 136/06 Dekretua: San Migel Plaza 7ko etxe inguruko katuak eta txakurrak kentzeko eskaera.
- 2006-10-06ko 137/06 Dekretua: Eguzkialde kalean zakurra libre ez ibiltzeko eskaera.
- 2006-10-11ko 138/06 Dekretua: M^a Victoria Azpirozi baimena ematea sukaldea berritzeko.
- 2006-10-16ko 139/06 Dekretua: Naturgas enpresari 250,99 €-ko tasa likidatzea erabilpen pribatiboagatik.
- 2006-10-17ko 140/06 Dekretua: Laskibar Bailara 16-An eta 16-Bn zenbait obra geldiaraztea.
- 2006-10-17ko 141/06 Dekretua: 52.218,18 €-ko iraileko fakturak onartzea.
- 2006-10-24ko 142/06 Dekretua: 142-E espedienteari gizarte larrialdiko laguntza ematea.
- 2006-10-31ko 144/06 Dekretua: Arturo Gonzalez baimena ematea etxe komunean erreformak egiteko.
- 2006-10-31ko 145/06 Dekretua: Share kalea 2 etxearen atariko teilapea aldatzeko baimena ematea.
- 2006-11-02ko 146/06 Dekretua: Ionela Daniela Hobearen euskara ikasteko matrikula udalaren gain hartzea.
- 2006-11-02ko 147/06 Dekretua: 135-E espedienteari gizarte larrialdiko laguntza ematea.
- 2006-11-02ko 148/06 Dekretua: Inmobiliaria Amocar S.A. enpresari 39.366,38 €-ko fidantza itzultzea.
- 2006-11-02ko 150/06 Dekretua: 35.881,87 €-ko jaietako fakturak onartzea.
- 2006-11-06ko 151/06 Dekretua: 28.935,94 €-ko urriko fakturak onartzea.
- 2006-11-13ko 152/06 Dekretua: udal-baimena ematea Javier Arrospideri ibilgailua espaloitik sartzeko.
- 2006-11-13ko 153/06 Dekretua: TDT lurreko telebista digitala igortzeko errepikagailuaren instalazioa onartzea.
- 2006-11-15ko 154/06 Dekretua: udal-baimena ematea Isabel Mateos Andradari ibilgailua espaloitik sartzeko.
- 2006-11-17ko 155/06 Dekretua: E.D.S. Ingenieria y Montajes S.A.-ri baimena ematea lurrazpiko linea eta transformazioko zentrua egiteko 24' zonaldean.
- 2006-11-22ko 156/06 Dekretua: Irurako Parrokiari dirulaguntza ordaintzea.
- 2006-11-22ko 157/06 Dekretua: "Irurako mediku-kontsultategi berria" obraren 1. ziurtapena onartzea. Kopurua: 53.877,03 €
- 2006-11-28ko 159/06 Dekretua: 131-E espedienteari gizarte larrialdiko laguntza ematea.
- 2006-12-01ko 160/06 Dekretua: euskara ikastaroen 1.071 €-ko matrikula-kopurua ordaintzea.
- 2006-12-05ko 161/06 Dekretua: Udako Euskal Unibertsitateari 50 €-ko diru-sarrera egitea.
- 2006-12-06ko 162/06 Dekretua: M^a Soledad Aranari lokalaren segregaziorako lizentzia ematea.
- 2006-12-11ko 163/06 Dekretua: 5, 20 eta 30 zonaldeetako zati baten urbanizazio proiektuari hasierako onarpena ematea.

LAUGARREN GAIA
ALKATETZAREN DEKRETUAREN BERRI EMATEA, 2005eko
AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ALDATUZ EGINDAKOA.

2006-11-22ko 158/06 alkate-dekretuaren berri eman dute:

“Udal honetako 2005eko aurrekontuaren likidazioa onartu zuen Alkateak 2006-07-24ko 110 zk. duen dekretuaren bidez. Likidazioan erroreak antzeman ditu idazkaritza-kontuhartzaitzak.

Hori dela eta, aipatu Erabakikuntzaren lehenengo zatia berriro onartu behar da.

Beraz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 2005ko udal honetako aurrekontuaren likidazioa onartzea.
Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako fondo likidoak, 2005-12-31n: 596.679,84 €

2.- Kobratu gabeko saldoak, 2005-12-31n: 189.864,98 €

Aurrekontuko zordunak: 188.237,58 €

Aurrekontuz kanpoko zordunak: 1.458,89 €

Aplikatu gabeko kobrantzak: 168,51 €

3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2005-12-31n: 595.112,89 €

Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: 252.044,63 €

Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:

Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: 342.769,01 €

Aplikatu gabeko ordainketak: 299,25 €

4.- Diruzaintzako soberakin gordina (1+2-3): 191.431,93 €

5.- Saldo kobragaitzak: 1.958,96 €

6.- Diruzaintzako soberakin likidoa (4-5): 189.472,97 €

7.- Diru-sarrereri lotutako gastuetarako diruzaintzako gerakina:

8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako soberakina (6-7): 189.472,97 €

9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza: 224.404,23 €.

10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza: -6.576,79 €.

11.- Doiketak, diruzaintzako soberakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:

12.- Doiketak, diru-sarrereri lotutako gastuen desbiderapenengatik: 0 €

13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12): 217.827,44 €.

14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak: 0 €

15.- Txertatu ezin diren kreditu soberakinak: 54.823,09 €

16.- Kreditu soberakinak, guztira (14+15): 54.823,09 €

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.artikuluari, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

BOSGARREN GAIA
ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, UDAL HONEN
AURREKONTUAREN 2005eko KONTU OROKORRA.

Udalbatzak aho batez erabaki du udaletxe honetako 2005eko ekonomia-ekitaldiko Aurrekontu Orokorra onartzea eta Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaltzea, dagozkion ondoriotarako.

SEIGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, UDAL HONEN 2006ko AURREKONTUAREN 2 ZENBAKIA DUEN KREDITU-ALDAKETAREN ESPEDIENTEA.

2006ko ekitaldirako udalaren Aurrekontuaren 2 zenbakia duen kreditu-aldaketaren espedientearen berri eman du idazkari-kontuhartzaileak.

Udalbatzak aho batez erabaki du honako hau:

Lehena.- 2006ko ekitaldi ekonomikorako udalaren Aurrekontuaren 2 zenbakia duen kreditu-aldaketaren espedientea onartzea, hasiera batean.

Bigarrena.- Espedientea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta informazio publikoko epea 15 egunekoa izatea; egun horietan, interesa dutenek aztertu eta udalbatzan erreklamazioak aurkez ditzakete.

Espedientea behin betiko onartutzat joko da, epe horretan erreklamaziorik egiten ez bada. Espedientearen laburpena argitaratu behar da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

ZAZPIGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, IRURAKO ZAHARREN BILTOKIA USTIATZEKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOA BEHIN BETIKO IZAERAREKIN ESLEITZEA.

2005eko abenduaren 20an, Udalbatza honek Miren Marquet Iraizozki esleitu zion Irurako Zaharren Biltokia ustiatzeko kontzesioa. Kontzesioaren esleipena behin-behinekoa zen, 6 hilabetekoa.

Baldintza-agirian ezarritakoaren arabera, kasu honetan, bidezkoa da behin betiko izaerarekin ematea.

Beraz, Udalbatzak aho batez erabaki du honako hau:

Lehena.- Behin betiko izaerarekin esleitzea Irurako Zaharren Biltokia ustiatzeko kontzesioa 4 urtez, beste 4 urtez luza daitekeena, 2006ko urriaren 29tik kontatzen hasita.

Bigarrena.- Dena den, interesatuak 150 €-ko kanona ordaindu beharko du hilero (BEZ barne).

Nolanahi ere, bi urtez behin kanon hori igo egingo da, Euskal Herriko KPIren arabera, eskumeneko erakunde ofizialak argitaratzen duena.

Hirugarrena.- Hala ere, esleipendunak 1.000 €-ko bermea utzi beharko du udaletxeko kaxan, indarrean dagoen legeriak esaten duen moduren batean, eta horretarako 15 lanegun izango ditu, hau dena jakinarazten zaion egunetik aurrera.

Era berean, udaletxera etorri beharko du hitzarmena sinatzera.

Laugarrena.- Marimi Ugalde alkateari ahalmena emango zaio hitzarmen hori sina dezan udalaren izenean eta bere ordezkari gisa.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka Administrazioarekiko auzi-helegitea ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

ZORTZIGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ALGECORI PABILOI AURREFABRIKATUA ALOKATZEA, ESKOLA-ERABILPENETARAKO.

Irurako Ikastolak beste gela bat behar duenez eta eraikinetan lekurik geratzen ez denez, aurrefabrikatutako pabiloi bat alokatu nahi du udalak.

Idazkariak ohartarazi dio Udalbatzari aurrekontuetan ez dagoela diru-izendapenik eta, ikastetxe pribatua izaki, gastu hori ez dagokiola udalari egitea.

Beraz, Udalbatzak aho batez erabaki du honako hau:

Algeco enpresari aurrefabrikatutako pabiloi baten alokairua kontratatzea, eskola-erabilpenetarako. Alokairuak hileko 300 € + BEZ balio du.

Nolanahi ere, kontratu hau administrazio-kontratua da eta Herri Administrazioen Kontratuen Legean ezarritakoak zuzenduko du.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka Administrazioarekiko auzi-helegitea ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

BEDERATZIGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, IRURAKO IKASTOLARI BAIMENA EMATEA KIROL ANITZETAKO UDAL-FRONTOIA ERABILTZEKO.

Irurako Ikastolak adierazi du, Lehen Hezkuntzako zerbitzua emateko ezinbestekoa dela 200 m²-ko eraikin estalia, gorputz-heziketa eta psikomotrizitate klaseak emateko, eta baimena eskatzen du eskola-orduetan udal-frontoia erabiltzeko, kirol jarduerak egiteko.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez erabaki du honako hau:

Eskatutako baimena ematea, betiere dagokion hitzarmena gauzatu eta sinatzen bada. Hitzarmen horretan zehaztuko da nola eta zein baldintzekin erabiliko den. Nolanahi ere, hitzarmena Osoko Bilkurak aztertu eta onartu beharko du.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka Administrazioarekiko auzi-helegitea ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

HAMARGARREN GAIA

2007rako HERRIKO JAI-EGUNA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udalbatzak aho batez erabaki du irailaren 29a, San Migel eguna, aukeratzea 2007ko herriko jai-egun bezala.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka Administrazioarekiko auzi-helegitea ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

HAMAIKAGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, IRURAKO ZAHARREN BILTOKIKO PREZIOEN BERRIKUSPENA.

Udalbatzak aho batez erabaki du Irurako Zaharren Biltokiko 2006rako prezioen tarifak onartzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka Administrazioarekiko auzi-helegitea ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

HAMABIGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, AMETSA PILOTA ELKARTEAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA

Udalbatzak aho batez erabaki du Ametsa Pilota Elkarteari 1.465,20 €-ko diru-laguntza ematea, 2005-2006 ikasturteko pilota-eskolako klaseei eta materialari dagokiena. Horretarako, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Nortasunaren egiaztagiria
b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.

c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko du(t)en ziurtagiria(k).

d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka Administrazioarekiko auzi-helegitea ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

HAMAHIRUGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, HITZAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

Udalbatzak aho batez erabaki du Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza euskarazko egunkariari 2.300 €-ko diru-laguntza ematea, 2006 urteari dagokiona. Horretarako, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Nortasunaren egiaztagiria

b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.

c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko du(t)en ziurtagiria(k).

d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka Administrazioarekiko auzi-helegitea ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

HAMAL AUGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, GALTZAUNDIREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

Udalbatzak aho batez erabaki du Tolosaldeko Galtzaundi Euskara Taldeari 1.700 €-ko diru-laguntza ematea, 2006 urteari dagokiona. Horretarako, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Nortasunaren egiaztagiria

b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.

c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko du(t)en ziurtagiria(k).

d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

Akordio hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzietako helegitea jarri daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

HAMABOSGARREN GAIA
ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, TXOLARRE IRRATIAREN
DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

Udalbatzak aho batez erabaki du Txolarre Irratiari 1.113 €-ko diru-laguntza ematea, 2006 urteari dagokiona. Horretarako, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Nortasunaren egiaztagiria
- b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.
- c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko du(t)en ziurtagiria(k).
- d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

Akordio hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzietako helegitea jarri daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 21:15ean eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.